

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Proiektuan bezeroekiko harremana modu hurbil, moderno eta profesional batean eraikiko da, horretarako, gure bezero motak dituen beharrak kontuan hartuko ditugu, eta hauetara gure zerbitzuak eta lokala egokitu. Bezero berriak sare sozialen, webgunearen, irudi erakargarrien eta ekintza berezien bidez (promozioak, zozketak, laginak edo ekitaldi txikiak) erakarriko dira. Helburua lehen inpresio positiboa ematea da, konfiantza eta arretazko zerbitzua transmitituz, gero bezero hauek mantendu ahal izateko.

Aldi berean, bezero nagusi hauentzako modu tradizionalago baten bidez mantenduko da harremana, adibidez, kartelak jarritz, lokaletik gertu dauden herri eta hiriko leku publikoetan batez ere, hauetatik egoten direlako, adibidez: tabernetan, kaleetako iragarki-tauletan, kulturetxeetan, kiroldegietan edo udaletxeetan esate baterako. Beste alde batetik, esandako moduan, haientzako ohikoak diren komunikabideetatik “kontaktua” mantenduko dute, batez ere, telebistako iragarkietatik, egunkarietatik eta irratiazen bidez.

Behin bezeroa proiektuarekin kontaktuan egon ondoren, harremana mantentzeko newsletterrak, eduki interesgarria eta deskontu edo sari-sistemak erabiliko dira, bezeroa berriro itzultzea sustatzeko. Aldi berean, iritziak eta iradokizunak jasoko dira galdetegi, sare sozial, email edo aurrez aurre bidez, zerbitzua hobetzeko eta komunitate sendo bat sortzeko. Jarduteko moduak hurbiltasuna, fidagarritasuna eta nortasun propioa transmititu nahi ditu.